

TEKNOLOGIA BERRIAK JASANGARRIAK DIRA?

HELBURUAK:

- Teknologi berrien erabilpenaz hausnarketa eginez, ikasleak erabilera jasangarrirantz bideratzea.
- Mugikorren erosketa berdea sustatzea.

LANDUTAKO GAITASUNA:

- Diziplina arteko oinarrizko konpetentziak:
 - Hizkuntza komunikazioa
 - Zientzia eta teknologia
 - Soziala eta hiritarra
- Zeharkako oinarrizko konpetentziak:
 - Aho-komunikazioa
 - Ikasten ikastekoa eta pentsatzen ikastekoa
 - Ekintzailea
 - Izaten jakitekoa



BESTE ERREFERENTZIA INTERESGARRIAK:

- Gailu elektronikoen historia: La historia de las cosas:
 - https://www.youtube.com/watch?v=sW_7i6T_H78
- "Technology and Sustainability". ITA(Institute of technology assessment)
 - <http://www.oeaw.ac.at/ita/en/topics/technology-and-sustainability>
 - <http://www.alboan.org/portal/index.asp>
 - <http://www.alboan.org/edukalboan/inpaktu-irudiak.pdf>
 - <http://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/>

JARDUERAREN GARAPENA

Teknologia eta jasangarritasunari buruzko hausnarketa proposatzen dugu. **Zer da teknologia? Eta jasangarritasuna?**

Talde handian batu, definizioak adostu eta komentatu.

Ariketa lau fasetan garatuko dugu:



1. Jarraian, post-it batean ikasle bakoitzak egunerokotasunean beharrezkoenak ikusten dituzuen lau teknologiak zerrendatuko ditu, eta aldamenean, abantailak ipiniko ditu.

2. Ondoren, lauko taldeetan, zerrendatu dituzten teknologiak bateratu eta galdera hauei erantzun:

- Zergatik erabiltzen dituzue?
- Beharizan komunak dituzte?
- Ingurumenari begira, zein abantaila dituzte?

Orain arte, teknologi berriek izan ditzaketen abantailez aritu gara. Baina **ezagutzen dituzue teknologia berrien erabilera masiboak dakartzan gatatzak?** Bideo honetan, argibideak: <http://www.tecnologia LibreDeConflicto.org/eu/>

3. Eztabaida pizteko galdera: bizi garen munduan teknologia beharrezkoa dugu, baina **nola hobe dezakegu gure portaera pertsonala "gatatzarrik gabeko teknologia" bideratzeko?**

Eztabaidak zenbait ondorio utziko dizkigu. Ondorio horiek oinarritzat hartuta, telefono mugikorren kontsumo arduratsua sustatzeko plana garatuko dugu:
Telefono mugikorren erosketa berdea.

Kontuan hartu beharreko lau fase:

- **Erosi aurrekoa:** kontsumo beharrak aztertu behar dira.
- **Erosterakoan:** ingurumena kaltetzen ez duten irizpideak lehenetsi behar dira.
- **Erabilera:** erabilera egokia egin behar da, eta berrerabilera ahalbideratzen duten gailuak erosi behar dira.
- **Hondakinak:** Hondakinen banaketa egokia egin behar da.

